## Alonsotegiko Udala

**Behin betiko onestea zerbitzuak emateagatik finkatutako tasak arautzen dituen Ordenantza Fiskala, baimena, erantzukizunezko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena behar duten jarduera eta instalazioengatik eta establezimenduak eta lokalak irekitzeagatik.**

Alonsotegiko Udalak, 2013ko uztailaren 23an egindako osoko bilkuran, erabaki zuen onestea zerbitzuak emateagatik finkatutako tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala, baimena, erantzukizunezko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena behar duten jarduera eta instalazioengatik eta establezimenduak eta lokalak irekitzeagatik. Erabaki hori 177. zenbakiko Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, 2013ko irailaren 16an.

Tokiko Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16.1. artikuluak eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49. artikuluak xedatutako epeak igaro dira, eta interesdunek ez dute inolako erreklamazio edo iradokizunik aurkeztu. Beraz, hasiera bateko erabakia behin betiko onetsitzat jo da.

Onetsitako ordenantzaren testu osoa argitaratuko da, Tokiko Ogasunei buruzko abenduaren 16ko 9/2005 Foru Arauaren 16.4 artikuluan xedatutakoaren babesean. Argitaratzen den egunean sartuko da indarrean, eta aldatzea edo indargabetzea erabakitzen den arte mantenduko da.

11. **Zerbitzuak emateagatik finkatutako tasa arautzen duen Ordenantza Fiskala, jarduera eta instalazioengatik eta establezimenduak eta lokalak irekitzeagatik.**

Ordenantza horren testua honela geratu da:

**1. artikulua.—*Zerga egitatea***

1. Honako hauek izango dira zergapeko egintzak:

a) Jarduera lizentziak eskuratzeko zerbitzu tekniko edo administratiboak ematea.

b) Lokalak irekitzeko aurkezten diren erantzukizunezko adierazpenen edo aldez aurreko jakinarazpenen harira ondoren egiten diren egiaztatze edo ikuskatze zerbitzu administratiboak.

c) Ikuskizun edo aisia jardueretarako erabili beharreko lokalek eta instalazioek izan behar duten establezimendu lizentzia edo baimena emateko beharrezkoak diren administrazio zerbitzuak.

2. Tasaren menpe egongo dira:

a) Establezimendua lehen aldiz instalatzea, jarduerei hasiera emateko.

b) Establezimenduaren titulartasun aldaketa.

c) Establezimenduan garatutako jarduera aldatzea edo handitzea, titular berarekin jarraitu arren.

d) Establezimendua handitzea edo bertan egindako edozein aldaketa, artikulu honen 1. zenbakian aipatutako baldintzetan eragina izanez gero. Hala bada, berriz egiaztatzeko exijituko da.

e) Establezimenduak lekualdatzea.

3. Industria edo merkataritza establezimendutzat joko da edozein eraikin bizigarri, jendaurrean irekita egon edo ez, etxebizitza huts gisa erabiltzen ez bada eta baldintza hauek betetzen baditu:

a) Enpresa, fabrika, artisautza, eraikuntza, merkataritza eta zerbitzu jardueraren bat gauzatzea eta Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergaren mende egotea.

b) Jarduera horiek egin ez arren, horien lagungarri badira edo haiekin lotuta badaude onurak edo aprobetxamenduak eskainiz. Hala nola, egoitza sozialak, agentziak, erakunde juridikoen ordezkaritzak edo sukurtsalak, langelak, bulegoak, ikasgelak zein garaje publiko eta pribatuak.

## Ayuntamiento de Alonsotegi

**Aprobación definitiva de la Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por prestación de servicios por actividades e instalaciones y apertura de establecimientos y locales sujetos a un régimen de autorización, declaración responsable o comunicación previa.**

El Ayuntamiento de Alonsotegi, en sesión plenaria celebrada el día 23 de julio de 2013, acordó aprobar provisionalmente la Ordenanza Fiscal reguladora de la tasa por prestación de servicios por actividades e instalaciones y apertura de establecimientos y locales sujetos a un régimen de autorización, declaración responsable o comunicación previa, siendo publicado el acuerdo en el «Boletín Oficial de Bizkaia» número 177, de 16 de septiembre de 2013.

Habiendo transcurrido los plazos previstos, según lo estipulado por el artículo 16.1 de la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales, así como lo dispuesto por el artículo 49 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local, sin que se hayan interpuesto reclamaciones ó sugerencias por los interesados, se entiende definitivamente aprobado el acuerdo inicial.

Se procede a la publicación del texto íntegro de la Ordenanza aprobada en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 16.4 de la Norma Foral 9/2005, de 16 de diciembre, de Haciendas Locales, entrando en vigor el día de la publicación y hasta que se acuerde su modificación ó derogación.

11. **Ordenanza Fiscal reguladora de las tasas por prestación de servicios por actividades e instalaciones y apertura y establecimientos de locales.**

El texto de la citada Ordenanza, queda con el siguiente contenido:

**Artículo 1.—*Hecho imponible***

1. Constituye el hecho imponible de la presente Tasa:

b) La prestación de servicios técnicos o administrativos para la concesión de licencias de actividad.

c) Los servicios administrativos de comprobación posterior o inspección que se presten con ocasión de las declaraciones responsables o comunicaciones previas que se formulen a propósito de la apertura de locales.

d) Los servicios administrativos necesarios para el otorgamiento de la licencia de establecimiento o autorización de la que deben disponer los locales e instalaciones destinados a la celebración de espectáculos o actividades recreativas.

2. Estarán sujetas a las Tasas:

a) La instalación, por vez primera, del establecimiento para dar comienzo a sus actividades.

b) El cambio de titularidad del establecimiento.

c) La variación o ampliación de la actividad desarrollada en el establecimiento, aunque continúe el mismo titular.

d) La ampliación del establecimiento y cualquier alteración que se lleve a cabo en ésta y que afecte a las condiciones señaladas en el número 1 de este artículo, exigiendo nueva verificación de la misma.

e) Traslados de establecimientos.

3. Se entenderá por establecimiento industrial o mercantil toda edificación habitable, esté o no abierta al publico, que no se destine exclusivamente a vivienda y que:

a) Se dedique al ejercicio de alguna actividad empresarial, fabril, artesana, de construcción, comercial y de servicios que esté sujeta al Impuesto de Actividades Económicas

b) Aún sin desarrollarse aquellas actividades, sirvan de auxilio o complemento para las mismas, o tengan relación con ellas en forma que les proporcionen beneficios o aprovechamientos, como por ejemplo, sedes sociales, agencias, delegaciones o sucursales de entidades jurídicas, escritorios, oficinas, despachos, estudios, así como los garajes públicos y privados.

cve: BAO-BOB-2013a211

**2. artikulua.—*Subjektu pasiboa***

1. Zerga horien subjektu pasiboak izango dira, zergadun diren adinean, pertsona fisikoak, pertsona juridikoak eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Zergei buruzko Foru Arau Orokorraren 34.3 artikuluan ageri diren erakundeak, udal zerbitzu edo jarduerak eskatzen badituzte edo horien onuradun badira edo horiek eragiten badituzte.

2. Administrazio-jarduerak edo -zerbitzuak subjektu pasiboa eragiten duela edo hari dagokiola ulertuko da, zuzenean edo zeharka, hark eragina denean, haren jarduerek edo ez-egiteek Udalak jarduerak ofizioz egitera edo zerbitzuak ematera behartzen dutelako, biztanleen segurtasun, osasun eta horidurako edo hirigintza antolamenduko arrazoiengatik edo beste edozein arrazoirengatik.

3. Zerga-ordaintzaileen ordezkotzat joko dira lokalen jabeak, eta horiek, hala badagokio, dagozkien onuradunen gaineko kuotetan eragina izan ahal izango dute.

**3. artikulua.—*Zerga kuota***

Ordenantza honetan araututako tasak eska ditzakeen kuotak honako hauek dira:

1. Instalazio espedientea izapidetzea eskatzen duten irekiera lizentziek zerga tarifa hauek ordainduko dituzte:

a) Tarifa orokorra: 7,25 euro.

b) 1. tarifa espezifikoa. Industriak, fabrikak eta oro har industria edo merkataritza pabilioi mota guztiak: 3,83 euro.

c) 2. tarifa espezifikoa. Nekazaritza eta abeltzaintza jardueretarako lizentziak: 1,89 euro.

Establezimenduaren azaleraren metro karratu bakoitzeko aplikatuko dira.

2. Tarifak %30 murriztuko dira lizentzia emateko jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko Araudian ezarritako izapidea beharrezkoa ez denean.

3. Gutxieneko kuotak: gutxieneko kuotak epigrafe hauetan jasotako tarifetara egokituko dira:

a) Banketxeak eta aurrezki kutxak: 2.460,87 euro.

b) Aseguru sozietateak eta mutuak: 2.460,87 euro.

c) Antenak eta telekomunikazio zerbitzuak: 500,68 euro.

d) Jatetxeak eta antzekoak:

— Bost eta lau sardexkakoak: 878,90 euro.
— Kategoria txikiagokoak: 500,68 euro.

e) Tabernak eta kafetegiak:

— Kategoria: Berezia A), Berezia B) 1.a eta 2.a: 878,90 euro.
— Kategoria txikiagokoak: 500,68 euro.
— Dastalekuak: 500,68 euro.

f) Hotelak eta landetxeak: 878,90 euro.

g) Ostatuak eta hostalak: 500,68 euro.

h) Supermerkatuak: 2.460,87 euro.

i) Elikagai dendak, frutategiak eta janari-dendak: 500,68 euro.

j) Handizkako salmentako biltegiak eta dendak: 2.460,87 euro.

k) Ile-apaindegiak, lurrin dendak eta drogeriak: 500,68 euro.

l) Bitxi-dendak, erloju-dendak eta apainketa eta opari artikuluak: 500,68 euro.

m) Farmaziak, akademiak, autoeskolak eta gimnasioak: 500,68 euro.

n) Estankoak, loteriak eta kinielak: 500,68 euro.

o) Higiezinen agentziak eta bestelako gestoriak: 500,68 euro.

p) Bidaia-agentziak: 500,68 euro.

q) Lantegiak, ibilgailuak konpontzekoak barne: 500,68 euro.

r) Industriak eta fabrikak - Industria edo merkataritza pabilioiak: 4.360,43 euro.

s) Lanbide askeko bulegoak: 500,68 euro.

**Artículo 2.—*Sujeto pasivo***

1. Son sujetos pasivos de las Tasas, en concepto de contribuyentes, las personas físicas y jurídicas y las entidades a que se refiere el artículo 34.3 de la Norma Foral General Tributaria de Bizkaia que soliciten o que resulten beneficiadas o afectadas por los servicios o actividades municipales.

2. Se entenderá que la actividad administrativa o servicio afecta o se refiere al sujeto pasivo cuando haya sido motivado directa o indirectamente por el mismo, en razón de que sus actuaciones y omisiones obliguen al Ayuntamiento a realizar de oficio actividades o a prestar servicios por razones de seguridad, salubridad o de orden urbanístico, o cualesquiera otras de su competencia.

3. Tendrán la condición de sustitutos del contribuyente los propietarios de locales, quienes podrán repercutir, en su caso, las cuotas sobre los respectivos beneficiarios.

**Artículo 3.—*Cuota tributaria***

Las cuotas exigibles por la tasa regulada en esta Ordenanza serán las siguientes:

1. Las licencias de apertura que requieran la tramitación de expediente de instalación, tributarán por las siguientes tarifas:

a) Tarifa general: 7,25 euros.

b) Tarifa específica 1. Industrias, fábricas y en general todo tipo de pabellones industriales o comerciales: 3,83 euros.

c) Tarifa específica 2. Licencias para actividades agrícolas y ganaderas: 1,89 euros.

Que se aplicarán por cada metro cuadrado de superficie del establecimiento.

2. Las tarifas resultantes se verán reducidas en un 30% cuando la concesión de la licencia no requiera la tramitación prevista en el Reglamento de Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas.

3. Cuotas mínimas: Las cuotas mínimas, se ajustarán a las tarifas contenidas en los siguientes epígrafes:

a) Bancos y Cajas de Ahorro: 2.460,87 euros.

b) Sociedades de Seguros y Mutuas: 2.460,87 euros.

c) Antenas y servicios de telecomunicaciones: 500,68 euros.

d) Restaurantes y similares:

— De cinco y cuatro tenedores: 878,90 euros.
— De categoría inferior: 500,68 euros.

e) Bares y cafeterías:

— De categoría: Especial A), Especial B) 1.ª y 2.ª: 878,90 euros.
— De categorías inferiores: 500,68 euros.
— Degustaciones: 500,68 euros.

f) Hoteles y Casas Rurales: 878,90 euros.

g) Pensiones y Hostales: 500,68 euros.

h) Supermercados: 2.460,87 euros.

i) Comercios de alimentación, fruterías, y ultramarinos: 500,68 euros.

j) Almacenes y comercios de venta al por mayor: 2.460,87 euros.

k) Peluquerías, perfumerías, droguerías: 500,68 euros.

l) Joyerías, relojerías, y artículos de adorno y regalo: 500,68 euros.

m) Farmacias, academias, autoescuelas y gimnasios: 500,68 euros.

n) Estancos, loterías y quinielas: 500,68 euros.

o) Inmobiliarias y demás gestorías: 500,68 euros.

p) Agencias de viajes: 500,68 euros.

q) Talleres, incluidos los de reparación de vehículos: 500,68 euros.

r) Industrias y fábricas - Pabellones industriales o comerciales: 4.360,43 euros.

s) Despachos de profesión liberal: 500,68 euros.

cve: BAO-BOB-2013a211

t) Gasolina zerbitzuguneak: 2.460,87 euro.

u) Komunitateko garajeak: 500,68 euro.

v) Nekazaritza eta abeltzaintzako jarduerak: 500,68 euro.

x) Gainerako jarduerak: 500,68 euro.

Oro har, eta artikulu honen aurreko paragrafoetan jasota ez dauden gainerako establezimenduetarako, gutxieneko kuota 500,68 eurokoa izango da.

Gutxieneko eta gehieneko kuotak %30 murriztuko dira aldez aurretik jarduera gogaikarri, osasungaitz, kaltegarri eta arriskutsuei buruzko Araudian ezarritako izapidea beharrezkoa ez denean.

4. Lokalak irekitzeko aurkezten diren erantzukizunezko adierazpenen edo aldez aurreko jakinarazpenen harira ondoren egiten diren egiaztatze edo ikuskatze zerbitzu administratiboak, arestian aipatutako tarifen arabera likidatuko dira.

## 4. artikulua.—*Salbuespenak eta hobariak*

Ez da salbuespen edo hobaririk emango tasa ordaintzean.

## 5. artikulua.—*Tarifak aplikatzeko arauak*

1. Establezimenduaren azalera zehazte aldera, hura osatzen duen azalera guztia hartuko da kontuan, unitate-multzo bakarra osatuz.

Dagoeneko irekita dauden establezimenduen eranskinek, hala nola, gordailuek, erakusketetarako lokalek, etab. tasa sortuko dute eta irekitzeko lizentzia beharko dute edo horren ordez erantzukizunezko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena erabili beharko dute, establezimendu nagusia kontuan hartu gabe.

2. Lizentzia eskaerak edo erantzukizunezko adierazpenak edo aldez aurreko jakinarazpenak, dagozkion agiriak ez izanez gero, etenik geratuko dira agiriak osatu arte. Horretarako, administrazioak 30 eguneko epea emango du, eta akatsak ez konpontzekotan, jarduerak artxibatuko dira. Egoera horietan, tasa %20 murriztuko da lizentzia ematean egokitutakoaren aurrean.

3. Lizentziak iraungitzat joko dira irekiera gauzatu ez bada emakidaren erabakia eman eta sei hilabete igaro ondoren.

Halaber, behin irekita jarduera etengo balitz edo Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan baja eragingo balute, sei hilabete edo gehiagoko epean zehar.

## 6. artikulua.—*Sortzapena eta zerga ordaintzeko beharra*

1. Tasa sortzen da eta zerga ordaintzeko beharra agertzen da zerga egitatea osatzen duen udal jarduera hasten denean. Ondorio horietarako, jarduera abiaraziko dela ulertuko da dagokion irekiera lizentziaren eskaera aurkezten denean, baldin eta subjektu pasiboak berariaz hori aurkezten badu, edo aldez aurreko jakinarazpena edo erantzukizunezko adierazpena aurkezten baditu.

2. Irekiera gauzatu bada dagokion lizentzia jaso gabe edo behar bezalako erantzukizunezko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena aurkeztu gabe, tasa sortuko da establezimenduak eskatzen diren baldintzak betetzen dituenez zehazteko bideratutako udal jarduera hastean.

## 7. artikulua.—*Adierazpena*

1. Irekiera lizentzia lortu edo erantzukizunezko adierazpena edo aldez aurreko jakinarazpena aurkeztu nahi duten interesdunek, aldez aurretik, Erregistro Nagusian, dagokien eskaera aurkeztuko dute. Bertan, lokalean garatuko d(ir)en jarduera/k zehaztuko dira, eta tasa likidatzeko oinarri izan beharko liratekeen baldintzen egiaztagiriak aurkeztuko dira, baita indarrean dauden arauzko xedapenen arabera eskaera izapidetzeko beharrezkoak diren bestelako egiaztagiriak ere.

t) Estación de servicio: 2.460,87 euros.

u) Garajes de comunidad: 500,68 euros.

v) Actividades agrícola ganaderas: 500,68 euros.

x) Resto de actividades: 500,68 euros.

Con carácter general y para el resto de los establecimientos no comprendidos en ninguno de los anteriores epígrafes de este artículo, la cuota mínima será de 500,68 euros.

Las cuotas mínimas y máximas serán reducidas en un 30% si no se requiere la tramitación prevista en el Reglamento de Actividades Molestas, Insalubres, Nocivas y Peligrosas.

4. Los servicios administrativos de comprobación posterior o inspección que se presten con ocasión de las declaraciones responsables o comunicaciones previas que se formulen a propósito de la apertura de locales, se liquidarán de conformidad con las tarifas especificadas anteriormente.

## Artículo 4.—*Exenciones y bonificaciones*

No se concederá exención o bonificación alguna en el pago de la tasa.

## Artículo 5.—*Normas de aplicación de las tarifas*

1. A los efectos de determinar la extensión superficial del establecimiento se tendrá en consideración la totalidad de la superficie que forma parte integrante del mismo formando un mismo conjunto unitario.

Los anexos a establecimientos ya abiertos, como depósitos, locales para exposiciones, etc., devengarán la tasa y precisarán licencia de apertura o sustitución de la misma por una declaración responsable o comunicación previa, con total independencia del establecimiento principal.

2. Las solicitudes de licencia o declaraciones responsables o comunicaciones previas, que carecieran de la documentación pertinente, quedarán suspendidas hasta tanto se complete aquélla, a cuyo efecto, la Administración concederá un plazo de 30 días, en el entendimiento de que, de no quedar subsanados los defectos, se procederá al archivo de las actuaciones. En dichos supuestos, se reducirá la tasa al 20% de la que correspondería de haberse concedido la licencia.

3. Serán declaradas caducadas las licencias cuando no se hubiera procedido a su apertura, a los seis meses siguientes al acuerdo de concesión.

Asimismo, si una vez abierto cesara la actividad o causaran baja en el Impuesto sobre actividades económicas, por periodo igual o superior a seis meses.

## Artículo 6.—*Devengo y obligación de contribuir*

1. Se devenga la tasa y nace la obligación de contribuir, cuando se inicia la actividad municipal que constituye el hecho imponible. A estos efectos se entenderá iniciada dicha actividad en la fecha de presentación de la oportuna solicitud de la licencia de apertura, si el sujeto pasivo formulase expresamente ésta, o de la presentación de la oportuna comunicación previa o declaración responsable.

2. Cuando la apertura haya tenido lugar sin haber obtenido la oportuna licencia o haberse presentado la oportuna comunicación previa o declaración responsable, la tasa se devengará cuando se inicie efectivamente la actividad municipal conducente a determinar si el establecimiento reúne o no las condiciones exigibles.

## Artículo 7.—*Declaración*

1. Las personas interesadas en la obtención de una licencia de apertura, o presentación de una declaración responsable o comunicación previa, presentarán previamente, en el Registro General, la oportuna solicitud con especificación de la actividad o actividades a desarrollar en el local, acompañándose los documentos justificativos de aquellas circunstancias que hubieran de servir de base a la liquidación de la tasa, así como de cualesquiera otros necesarios para la tramitación de la solicitud a tenor en las disposiciones reglamentarias vigentes.

cve: BAO-BOB-2013a211

2. Irekitzeko lizentzia, edo aldez aurretiko jakinarazpena edo erantzukizunezko adierazpena egin ostean, establezimenduaren jarduera edo establezimenduak proiektatu dituen baldintzak aldatu egingo balira, edo hasieran aurreikusitako lokala handitu egingo balitz, aldaketon berri eman beharko zaio Udal Administrazioari.

**8. artikulua.—*Diru-sarrera***

Udalak tasa horren gordailua eskatuko du eta lizentzia eskaria egiten den unean egiaztatu beharko da, edo aldez aurretiko jakinarazpena edo erantzukizunezko adierazpena egiten denean. Ez da espedienterik izapidetuko dagokion tasa ordaindu izan gabe.

**9. artikulua.—*Arau-hausteak eta zerga-zigorrak***

Zergen arloko arau-hausteen kalifikazioari dagokion guztian, eta kasuan kasu jar daitezkeen zigorrak zehazteari dagokionez, Zergari buruzko Foru Arau Orokorrean eta Gestio, Bilketa eta Ikuskapeneko Zerga Ordenantza Orokorrean araututako erregimena aplikatuko da.

**10. artikulua.—*Araudi ordeztailea***

Ordenantza honetan aurreikusten ez den guztian Bilketa eta Ikuskapeneko Zerga Ordenantza Orokorrean araututako erregimena aplikatuko da.

AZKEN XEDAPENA

**Ordenantza hau indarrean sartzea**

Ordenantza hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera sartuko da indarrean, eta indarrean egongo da hura aldatu edo indargabetu arte.

Alonsotegin, 2013ko urriaren 28an.—Alkate-Udalburua, José Luis Erezuma Jauregi

(II-7436)

2. Si después de formular la solicitud de licencia de apertura o presentar la oportuna comunicación previa o declaración responsable, se variase o ampliase la actividad a desarrollar en el establecimiento, o se alterasen las condiciones proyectadas por tal establecimiento o bien se ampliase el local inicialmente previsto, estas modificaciones habrán de ponerse en conocimiento de la Administración Municipal.

**Artículo 8.—*Ingreso***

El Ayuntamiento exigirá el depósito previo de la tasa que deberá de acreditarse simultáneamente a la solicitud de la licencia o presentación de la oportuna comunicación previa o declaración responsable. No se tramitará expediente alguno sin que se haya efectuado el pago de la tasa correspondiente.

**Artículo 9.—*Infracciones y sanciones tributarias***

En todo lo relativo a la calificación de las infracciones tributarias, así como de las sanciones que a las mismas correspondan en cada caso, se estará a lo dispuesta en la Ordenanza Fiscal General de Gestión, Recaudación e Inspección.

**Artículo 10.—*Normativa supletoria***

En lo no previsto por esta Ordenanza, será de aplicación la Ordenanza Fiscal General, Recaudación e Inspección.

DISPOSIÓN FINAL

**Entrada en vigor de la presente Ordenanza**

La presente Ordenanza entrará en vigor a partir del día siguiente al de su publicación en el «Boletín Oficial de Bizkaia» y permanecerá vigente hasta su modificación o derogación.

En Alonsotegi, a 28 de octubre de 2013.—El Alcalde-Presidente, José Luis Erezuma Jauregi

(II-7436)

•

## Artzentalesko Udala

**Fidantzak itzultzea**

Helbide soziala Iurretan (Bizkaia) duen Central Forestal, S.A. enpresak eskatu du udaletxe honetan jarritako 1.800 €-ko fidantza itzultzeko. Horren bitartez, bermea eman zuen pinua Manuel Quintana Bernalesen partzuergotik (Los Corrales-Fuente la Cabareda) ateratzeko, Tuetxeko errepidea erabilita.

Helbide soziala Zallan (Bizkaia) duen Olmos Forestal, S.L. enpresak eskatu du udaletxe honetan jarritako fidantza hauek itzultzeko:

— 2.400 €-ko fidantza, honako honen berme gisa: 200 estereo zur ateratzea Eliseo Laña de Blasen baso aprobetxamendutik, El Alisal errepidea erabilita.

— 3.600 €-ko fidantza, honako honen berme gisa: eukaliptoa ateratzea Mª José Landa de la Hozen baso aprobetxamendutik, erabilera librekoa da eta. Traslosherosetik La Tejerara doan errepidea erabili zuen.

— 2.400 €-ko fidantza, honako honen berme gisa: 50 estereo pinu ateratzea Manuel Quintana Bernalesen aprobetxamendutik, Traslosherosetik La Tejerara doan errepidea erabilita.

— 3.600 €-ko fidantza, honako honen berme gisa: 1.500 estereo pinu ateratzea Amelia Maguregui Llagunoren jabetzako baso aprobetxamendutik, La Estacióngo errepidea erabilita.

— 3.600 €-ko fidantza, honako honen berme gisa: zura ateratzea Begoña Mollinedo Silvaren partzuergotik; zehazki, erabilera publikoko 69 zenbakiko Alen menditik, Las Tabernillas parajean.

## Ayuntamiento de Artzentales

**Devolución de fianzas**

Por la empresa Central Forestal, S.A., con domicilio social en Iurreta (Bizkaia) se ha solicitado la devolución de la fianza depositada en este Ayuntamiento por importe de 1.800 euros como garantía para la extracción de madera de pino por la carretera de Tuetxe del consorcio de Manuel Quintana Bernales en lugar denominado Los Corrales-Fuente la Cabareda.

Por la empresa Olmos Forestal, S.L., con domicilio social en Zalla (Bizkaia) se ha solicitado la devolución de las siguientes fianzas depositadas en este Ayuntamiento:

— Fianza de 2.400 € como garantía de la saca de 200 estéreos de madera por la carretera El Alisal del aprovechamiento forestal de Eliseo Laña de Blas.

— Fianza de 3.600 € como garantía de la saca de eucaliptus por la carretera de Traslosheros a La Tejera del aprovechamiento forestal de María José Landa de la Hoz de libre disposición.

— Fianza de 2.400 € como garantía de la saca de 50 estéreos de pino por la carretera de Traslosheros a La Tejera del aprovechamiento forestal de Manuel Quintana Bernales.

— Fianza de 3.600 € como garantía de la saca de 1500 estéreos de pino por la carretera de La Estación del aprovechamiento forestal propiedad de Amelia Maguregui Llaguno.

— Fianza de 3.600 € como garantía de la saca de madera del consorcio de Begoña Mollinedo Silva en el monte de U.P. 69 Alen, paraje Las Tabernillas.

cve: BAO-BOB-2013a211